

**31. artikulua.– Edari alkoholdunen banaketa eta salmenta.**

3.– Debekatuta egongo da edari alkoholdunak saltzea eta banatzea toki hauetan:

a) Egiten dituzten jarduerengatik eta eskaintzen dituzten zerbitzuengatik batez ere 18 urtez beherakoentzat diren lokal eta zentroetan.

b) 18 urtera arteko ikasleentzako ikastetxeetan.

c) Kirol-lehiaketak egiten diren instalazioetan eta zentro sanitario, soziosanitario eta zerbitzu sozialetakoetan.

d) Kanean, salbu eta udalek baimendutako terrazetan, mahai hankabakarretan edota ekintza eta jardueretan.